# Ausrine Stundyte sopranoak kontzertu bat eskainiko du osteguneau: bere ahots indartsuarekin *Erwartung* interpretatuko du, Arnold Schönbergen opera enigmatikoa

- **Soprano lituaniarra nazioarteko ahots liriko handienetako bat da eta ikusleek oraindik ere gogoan dute duela bi urte egin zuen Mendi-Mendiyanen interpretazio bikaina.**
- **Stundytek kontzertu formatuan interpretatuko du Schönbergen obra, Andrej Hovrin maisua pianoan lagun duela.**
- **Kontzertua ekainaren 10ean izango da, eta Arriaga Antzokiak Guggenheim Bilbao Museoaren *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotuta prestatu duen programazio bereziaren baitan dago.**

**Bilbo, 2021eko ekainaren 8a**.- Arriaga Antzokiak goi mailako musika emanaldia eskainiko du etzi, ekainaren 10ean, 19:00etatik aurrera. Goi mailakoa izango da, bai interpretatuko den ***Erwartung*** obragatik, bai ekitaldiaren protagonista den sopranoaren, **Ausrine Stundyte**ren, mailagatik. Abeslari lituaniarra gaur egun nazioartean gehien goraipatzen den ahotsetako bat da, eta 2019an Bilboko ikusleak liluratuta utzi zituen euskaraz abestuz Usandizagaren *Mendi-Mendiyan*en muntaia bikain hartan, Calixto Bieitok zuzendutako Arriaga Antzokiaren ekoizpenean.

Ausrine Stundyte Bilbora itzuliko da, oraingoan, bere ibilbidean lehen aldiz ekitaldi bakarreko *Erwartung* (euskaraz, *Itxaronaldia*) opera interpretatzeko, **Arnold Schönberg**en musikarekin eta Marie Pappenheim-en libretoarekin. 1909an konposatua izan arren, ez zen estreinatu 1924ko ekainaren 6ra arte, Pragan. Oso konposizio berezia da eta Ausrine Stundytek kontzertu formatuan interpretatuko du, **Andrej Hovrin** maisua pianoan lagun duela. Andrej Hovrin musikari errusiar bikaina da, agertokirik onenetan ohikoa, eta pianista laguntzaile gisa 10 urte zituela hasi zena. Beraz, luxua izango da kontzertu honetan Schönbergen opera bikain eta misteriotsua dastatzea, Stundyteren ahots indartsuak eta Hovrinen esku bertutetsuek interpretatuta.

"Eszitazio espiritual goreneko segundo bakar batean gertatzen den guztia mugimendu motelean irudikatzean datza, ordu erdira arte luzatuz". Horixe izan zen Arnold Schönbergek berak *Erwartung* operari buruz egin zuen deskribapen laburra. Lan honetan, jada dodekafonismorantz doan Schönberg bat aurkituko dugu, sorkuntza atonala eta disonantea erakusten dituena, baina ehundura espresionistaz betea dagoena eta aparteko indarra dituena. Historian zehar, asko dira *Erwartung*eko musika definitzen saiatu diren egileak; gau ilunean baso batean maitalearen bila dabilen emakume baten gaueko bidaia kontatzen edo deskribatzen duen Schönbergen obra hau irudikatzen saiatu direnak. Ilunpetan elkarren artean lotzen diren irudi fantasmagorikoak, gauaren mantua protagonistaren ziurgabetasunaren gainera erortzen da, zeinak etsi-etsian bilatzen baitu bere maitalea, zorigaitzaren itzala bere gainean jartzen den bitartean. Zalantzarik gabe, Ausrine Stundyteren ahots

pribilegiatuak eta interpretatzeko gaitasunak obra honen intentsitate osoa transmitituko diote ikusleei.

**Lehen lerroan**
Ausrine Stundyte une artistiko paregabea bizitzen ari da. Lituaniako sopranoa duela egun batzuk Munichen, Aribert Reimannen *Lear* ekoizpen berrian, Reganen paperean debuta egin ondoren iritsiko da Arriaga Antzokira. Gainera, aurten, 2021ean, Vienan, *Elektra*ren paper nagusia interpretatuko du, zeinarekin 2020ko Salzburgoko Jaialdian arrakasta handia lortu baitzuen eta txalotua izan baitzen. Epe ertainean erronka zirraragarriak ditu aurretik, besteak beste, 2022an soprano paper nagusiak egiten dituenean *Suzko aingeru*aren ekoizpen berrian, Madrilen, Pendereckiren *Los demonios de Loudun*en ekoizpen berrian, Munichen, eta *Mtsensk barrutiko Lady Macbeth*en ekoizpen berrian, Bartzelonan eta, aurrerago, Genevan eta Vienan.

**Urte eroak, 1920ko hamarkada**
Arriaga Antzokiak prestatu dituen zazpi ikuskizunetatik bosgarrena da hau, une honetan Guggenheim Bilbao Museoan ikusgai dagoen *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketarekiko paraleloan eta haren osagarri gisa egindakoetatik.

Komeni da gogoraraztea Guggenheim Bilbao Museoaren eta Arriaga Antzokiaren arteko elkarlan hau Calixto Bieito Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoaren inplikazioaren bidez sortu zela, berak egin baitu *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren diseinua. Elkarlan horren helburua da, alde batetik, erakusketaren eszenografia aberastea, Bieitoren ukitu pertsonala emanez, eta, bestetik, bi erakundeen arteko elkarrizketa Arriaga Antzokira hedatzea. Bertan, ikuspegia zabaltzen duten eta erakusketaren osagarri diren zazpi ikuskizun eskainiko dira.

**ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**
- 16 eta 30 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus